

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure xede-publikoa oso ondo definituta dago, eta euskal gastronomia eta kultura modu benetan autentiko, hurbil eta parte-hartzailean ezagutu nahi duten atzerriko zein estatuko turistak hartzen ditu barne. Bezero mota honek ez du interesik eskaintza turistiko masifikatu edo artifizialean; aitzitik, esperientzia errealak, gertukoak eta pertsonalizatuak baloratzen ditu, tokiko jendearekin harreman zuzena izatea ahalbidetzen dutenak.

Adinari dagokionez, gure bezero nagusiak 25 eta 65 urte bitarteko pertsonak dira, nahiz eta xede-bezero idealak 35 eta 55 urte bitartekoak izan. Orokorrean, diru-sarrera ertain-altuak dituzte, eta horrek kalitatezko esperientzien truke prezio handiagoa ordaintzeko prest egotea ahalbidetzen die. Normalean bikotean, lagun talde txikietan edo enpresa-talde murriztuetan bidaiatzen dute, eta bidaiaren barruan jarduera berezi eta gogoangarri bat txertatu nahi izaten dute.

Jatorri geografikoari dagokionez, atzerriko bezeroak batez ere Europatik, Estatu Batuetatik eta Asiako zenbait herrialdeetatik datoz, eta estatuko bezeroak, berriz, nagusiki hiriburu handietatik etortzen dira. Horiez gain, tokiko bezeroak ere badaude, batez ere ekitaldi berezietarako, ospakizunetarako edo esperientzia desberdin baten bila parte hartzen dutenak.

Ikuspegi psikografikotik, gure bezeroek gastronomia eta kultura maite dituzte, jasangarritasunarekiko sentsibilitatea dute, tokiko produktuak eta ekoizleak baloratzen dituzte, eta esperientzia baten bidez ikasteko eta parte hartzeko gogoak dute. Ez dira kontsumitzaile pasiboak; aitzitik, sukaldatzeko, partekatze eta tokiko bizimodua barrutik ezagutzeko interesa dute.

Portaerari dagokionez, bezero hauek esperientzia bakarrak, errepikaezinak eta emozionalki esanguratsuak bilatzen dituzte. Kalitatea lehenesten dute kantitatearen gainetik, eta horregatik, balio handiko eskaintzengatik prezio handiagoa ordaintzeko prest daude. Bidaiaren barruan, oroitzapen berezi bat sortuko duen jarduera bat egitea dute helburu.

Ondorioz, gure negozioa merkatu segmentatu eta espezializatu batean kokatzen da, gastronomia eta kultura baloratzen dituzten turista eta talde pribatu txikiei zuzenduta. Laburbilduz, gure xede-bezero ideala 35 eta 55 urte bitarteko pertsona da, diru-sarrera ertain-altukoak, gastronomia eta kulturarekiko interesa dutenak, eta esperientzia autentiko, parte-hartzaile eta benetakoak bilatzen dituztenak.